

- *Di botanika atzizkia?*

Lengo batez emen esan bezala, *-di* atzizkiaz xehetasun zonbait bildu ditut, eta zuen baimenarekin irakurriko. *-Di botanika atzizkia?* Galdera nagusia auxe izango litzake. Au zen, izan ere, gure zuzendari jaunak eskatu zigun azterketa.

Alare, joera asko ditu atzizki onek eta banaka banaka aipatu beharra izango ditugu.

1.—IZENAK

Izen batzuk ba ditugu *-«di»* berez dutenak:

Idi, ardi, zaldi, aberetan.

Ergunadi, basa pistia.

Aldi, mendi, gurdi, izerdi, bestelako gauzetan.

Eta oietatik sortu zaizkigu:

Italdi (italdiko), *gurdibide*, *Auñamendi* eta beste.

Beste alde, laterazkoak ba dira, ez ba dira, jendetan ere sartua da:

Balendi, Laurendi, Bikendi.

Jaun San Bladi, erraiten da Luzaideko otoitz ttipitan.

«Jaun San Bladi

Nik sua estali;

Edozein gaisto jin baladi

Bortan bedi arri...»

2.—IZEN ONDO

Izen-ondo, adjetibo, edo dena dela. Auetan ere sartzen da bein edo beste. Ala:

Aundi, lodi, erdi, urdin.

Auek, gero, beste itz batzuk sortzen dituzte:

Etxandi, Andia;
Mugardi, zelaierdi,
Osturdin, Arbazu'ko basoa.

3.—ADITZA

Aditzak ere sortzen ditu *-di* banaka batzuk:

- a) Iketan edo noketan agintzeko moldean, *etor adi, egon adi.*
- b) Zuketako agintzan: *sar bedi. Egin bedi.*
- c) Nahikaria adirezteko (optativo): *joan baladi!!*
- d) Aitzaki bezala (condicional); «*etor baladi, etxean ar ginezake.*»

4.—ADITZ ONDO

Aditz ondoko itzetan, adverbio gisa, sortzen da batzutan:

Geldi, aspaldi, oraindik, oraindio.

Nundik nora datorren adierazteko ere bai:

Nundik, noiztik (noizdanik), galderak dira.
Andik eta emendik; atzotik, gaurtik, biartik, erantzunak.
Madriletik (Madrildik) eldu naiz. *Urdian'dik.*

5.—BOTANIKA ATZIZKIA

Esanak esan, ez gera oraindio gaurko auzian sartuak. *-Di* atzizki zugaitzkoa dela ezin dugu ukatu; botanika kontuan da aberatsena.

Arantzadi	L a r d i (lardizabal)
A r i z d i	Maizdi
Intxaurdi	O t a d i
Intxordi	p a g a d i
Elordi	pinudi
Ezpeldi	Txipodi, eta abar.

Itz batez esan ginezake zugaitz izen geienekin ba dela *-di* atzizkia; edo denekin: gorostidi, sagardi.

Zugaitz batek bi edo iru izen balin baditu, joskera berexiak artzen ditu. Berdin gertatzen da edozein belar edo landarekin:

I r a : *Iradi* (Urdiain'en); *Iradier*, Arabako deitura.

Irastorra: *Irastordi* (Lekunberri'n); *Iristordi* (Arbazun'n).

G a r o a : *G a a r i* (garodi?) Lezaeta aldean.

Iratzea da Luzaiden, baño ez dute «iratzdi» esaten. Iratz lekua, *i r a s a i l a* da. Behar bada beste nunbait «iratzdi» izan laike.

Alta'tik, *Altsasu* (altzazu), *Altzania* (Altzadia?), *Alzate* sortzen dazkigu. Eta ez «Altzadi» edo «Altzati».

-Ti atzizkia. -Di bezala da. Aldaketa txiki bat:

Arizti	Sagasti
Aresti	Urrizti (Urdiain)
Intxausti	Zugasti, Zuasti.

Eta oiek bezala beste asko.

T x u n k a i, Altsasuko dermio bat da (Txunkadi?).

L a s t a i ere (Lastadi), Altsasu'n dago.

Oriotai, Urdiain'go lurraldea.

6.—ZUGAITZ EZ DIRENAK

-Di ez da zugaitz gaietan bakarrik ibili oi den atzizkia. Naparroan *barruti*, *barrutiya*, esaten diogu belardi esiz inguratuari. *Kaskardi* sakana guzian lur arriduna da. Bada kaskardi, dermiyo izena, bai Urdiain'en eta bai Altsasun. *Urdi*, ur tokia (Urdiain).

A s k a r d i, Urdiain'go lurraldea.

A x k a r d i, Etxe izena (Ergoiena). Etxarri'ko dermiyo bat.

E x k e r d i, Arbizu'ko etxea.

Zugaitzez landako itzetan ere zernahi joskera mota ba da. Goazen pixkaka:

a) *Toponimia'ko itzak*. Askotan ez da aisa jakiten zugaitz erroko itzak diren ala bestelakoak. Gañera etimoloji kontuan sartzea istillu gaiz-

toan sartzea izango litzake. Botanikakoak ala ez, toponimi itzak diren bezala emango ditugu; ala,

L o i d i	Anbulodi
Balerdi	Berazadi
Guridi	Arbeldi, Alberdi, Arbildi.
Berridi	Txertudi, Chaurtudi
Emaldi	Capayndi
Gabadi	Galardi (Aralar mendian)
Arbandi (Luzaide'n)	Asurdi (Ituren'go mendia)
Txopordi (Urdiain)	Belandia (Araba'n)

Luzaide'n bilduak ditut: *Lapurdiola*, *Arbandi gaina*, *O di*, *Saukadi*.
Denak mendi izenak.

Urdiarbe, Baxe Nabarran.

Arkadi, arriz betetako lekua (Larzabal jaunak dionez).

Azpalidi, Astillero (Usurbil'en).

Bargundia, Arratia'ko ballaran.

Ukerdi, Erronkari'ko mendi izena (Larra inguruan).

Akoundia, ba da Urbasa mendian.

Akondia ekartzen du San Martin'ek Eibar'ko baserrien izen bilduman (*Munibe*, t. 3-4; 1963) *Cantar de la Batalla de Akondia* (s. XIV). Lope Garzia Salazar'ek dakar. Michelena'k ere bai (*Textos Arcaicos Vascos*. Madrid 1964; pág. 69).

Buruandi. Amabost'garren mendeko paperrak Urbasa mendiko izena bezala ematen dute (1412). *Bagecemedi* (id. Urbasa).

b) *Erriizenak*

Ozcoidi	Ciordia
Yoldi	Izurdiaga
Laburdi, Lapurdi.	Zabaldica
Zugarramurdi.	Undiano
Urdiroz	Ibardin

Ba dira beste erri izen batzuk *-di* artean sartzen dutenak; baño, *-ain* eztabaida aundiko bukaera dela ta ez ditugu aipatzen. Ala *Gerendiain*, *Orendain*, *Gastiain* eta beste.

c) *-ti atzizkiarekin diren erriak.*

Erviti	Arratia
Cilveti	Arruti
Gorriti	Artieda
Unciti	Artica
Olazti	L o i t i (portua)
Zuasti	Isasti

Altsasun bildutako itzak:

Aldantia
Amezti
Intxostia
Martinsasti

Luzaide'n *Y a s t i* eta *aztia*.

7.—ABSTRACTO, NOR-GABEA

Zein edo nor-gabeko adibideak ere *-di* atzizkiarekin adierazi oi dira: ezagunak dira,

G i z a d i	erregedi
gaztedi	Euzkadi
i z a d i	l u d i
sendi	lagundi

Eta lagunditan da gure *E u s k a l t z a i n d i a*.

Emen ba da beste auzi bat: itz berriena, alegia. Izan ere itz auetako asko berriak dira, noski. Berri izatea akats aundia izan laike; edo ez inolako akatsa, joera errikoia balin bada.

Nik txikitán berrizale izatea zer zen ez nakien; eta nere etxeoak ere ez. Alare, sasi estuko zokoari *sasidi* esaten genion (sasidiyen ezin atea!). Era berean, basoa beteko zugaitzdiari *basodi* (Zer basodiya!). *Arboldia* esaten dutenak ere ba dira. Beraz, joera errikoia dela ezin ukatu.

Gañera itz oiek guziak ez dira berriak. *Gazteria* esaten da Be-Nabarrren; eta gazteria esaten diote Luzaiden erriko gazte jendeari. *Ausardia* (erdaraz atrevimiento bezala), ausartak duen kopetari esaten dakio Garazi'n. Behar ba da, itz oiek etziren bakarrak.

Alde aundia dago itz batzutatik bestetara. *Sendi* (famili), esate baterako, ez da errikoia. Beste gauza batzuk ekartzen ditu gogora; *argi-sentia*, edo erdarazko sentipena: «sentitzen zaitut, sentitzen, ari zerala jeikitzen...», gure erritako mutilak menderen mendetan kantatu izan duten bezala.

8.—IZATEKO MODUA

Beste batzutan, nor-beraren izateko modua, zaletasun eta errextasuna adierazten du atzizki onek: *negarti*, *lotsati*, *gezurti*, *bildurti*.

Beste mailla batean or dira, askori errendako gura ematen dieten,

Abesti
olerti
erti
antzerti

Ain errikoiak ez izanik ere, oso sartuak daudela aitortu behar da; edo, egunetik egunera sartzen ari.

9.—ALDAKETAK

a) *-doi*; *-toi*. Auñamendi aldeko joera dugu. Joera zaharra eta *-di* onen ordezkoa. Zugaitzetan sagardoi, ezpeldoi. Gaur Bidasoaz beste alde-tik bakarrik esaten da. *Arradoy*, mendi izena. *Axixtoi*, Luzaide'ko mendia. Ba da beste *-toi* bat, erdaratik eldu dena; ez da gauza bera. Nik uste berexi beharko litzakela: leoi, koroi, arrazoi bezala, sartu zaizkigu *frontoi*, *kantoi* eta beste.

Eibarren den *kantoi* baserria eta *Pagei-kantoikua*, ez ote da erdarazko «cantón» itzetik eldu? Nere sort errian «kantona», etxe eskina da eta an hiltzen dira neskatx gazteak elizatik atera ta izketan egoteko.

Idoia, ur geldia. Urbasa mendian ur putzu asko izaten omen zen eta *idoiak* esaten zieten. Azken urte auetan ustuak dira. Isaba'n dago Idoia'ko Ama Birjiña. Arbazu'n, *idooziya* esaten diote. *Idocin* erria ere ba dugu.

b) *-dui*; *-tui*

Bizkay aldean *-dui* eta *-tui* esaten dute. Otadui; sagardui. Michele-nak uste du Araba aldean ere ala izango zela. Itxura ba du. San Martin'ek

jakinarazten dit, G. López de Guereñu'k, *Alava, solar de arte de fe* izeneko liburuan (Vitoria 1962, 124'gn orrian), Peñacerrada'ko *N.^a S.^a de S a g a r d u y a* aipatzen duela.

c) *-doia; -toia*

Dirudienez *-doia* eta *-toia* atzizkiak 'toki', 'leku' bezala artzen dira. *Ikastoia*, ikastetxe, eskola.

Otxandio'n burni oletako zaborra botatzen den tokiari, *zamardoia* deitzen diote. 'Zamarra' (escoria). Zamardoi asko izan behar du errian.

Eta San Martin'ek Peña Santiago'rekin egin duen Urraul goi aldeko etnografi azterketan ikusten danez *Sastoia* izeneko baserria atzeman dute Beste izen batzuk ere ba dakarzki: *Sastuya, Chastoya, Chistoya, Cestoya* eta *Cestovi*.

d) *-deia; -teia*

Arbazu'n 'toki' eta 'leku' adierazteko *-deia* eta *-teia* ibiltzen ditugu (-tegi bezala?).

S u t e i a (aroztei'ko su lekua).

a u s t e i a, labe azpiko auts lekua.

m a s a n d e i a, sukalde ondoko gela iluna. An egiten zen ogia.

Abere kontuan ere berdin gertatzen da: *usoteia, olloteia, ollateia*.

Urdiain'en elizaren amarrenak gordetzen ziren gelari *Amarrendeia* gelditu dakio. Apez etxeko barne txiki bat izaten da.

Bi oartxo atzizki ontaz: *e i y a* eta *t e i a*.

Luzaiden Txerritegia esateko «*t e i a*» esaten dute. Sakanan, berriz, *eiya*. «Eiyak atera», azpiak garbitzea da. Badirudi 'txerri' izena aipatzea gogor egiten zitzauela. Luzaiden *kumiak*, txerrikumiak dira. *zazpi kume* ditu.

Arbazu'n, *-teia* eta *-di* atzizkiya berexten dira.

-Di gauz batek berezko etorria, edo izatez duen tokia adierazteko esaten dute; *-teia* gauza oien bil-tokiari. Ala, *belardi* belarra datorren lurre da; eta *belartei* goiko ganbara, bearra sartzeko tokia. Altsasun *biardi* esaten diote.

Luzaiden *mahastia* (mahatsdia) mahats alorra da. *Ardandeia* da, beste alde, karrikako etxe bati gelditu dakion izena (Ardandegia).

Eta azkenekotz, ona emen Urdiain'go dermiyo zonbait izen:

I t s o i, zelaitxo bat mendian
t x o i t e i, dermioan
e r l a t a i, dermioan
l a n t a i dermioan
o r i o t a i dermioan
A t s u l a i k o Ama ere bada Eskualerrian

-io bukaeran dutenak etimoloji zaillekoak direla dio Miehelenak eta ez ditut lan ontan sartu: oiek dira

Areitio	Rocandio
Gomendio	Laudio, Llodio (Claudio?)
Zamudio	Otxandio (Otxandiano)
Erandio	Durandio (Durandiano)

Arbazu'n *M u t i o* eta *Mutio* txiki izeneko lurraldeak ba ditugu. Eta besterik ez. Barkatu luzegi egon ba naiz.

Txosten au Eskualtzaindian irakurri ondoan elkar-izketa baliosa sortu bai zen, ona emen an aipatutako itzen errezkada:

A b o d i, Irati mendiko eldean.
A d i, mendia.
A y e r d i, Zaldibi'ko etxe izena. Bergaran ere bada.
B a l e n d i, Xuberon.
G i l t z u r d i n a r r i, arri metatua.

E m a l d i. Erri askotan daukagu: Garay, Ceanuri. Mondragoi'ko baserria, eta abar.

I t x o i l z a r, Oyarzun'go mendia.
L i z u n d i a, Elgoibar'ko baserria.
M u s k i l d i, Xubero'ko erria. Zaldibi'n etxe izena.
O t s a g i'n Muskilda'ko Andra Mari.
S a t u r d i, Zaldibi'ko ermita.
Z u m a d i (Zumaya?)
 Beste alde, aipatu laizke:

A r b o t i, Arbuet; Amikutze'ko erria. Izen bereko Larrañeko mendia.
I r a t i, Naparroan.
O ñ a t i, Gipuzkoan.

Isaba'ko festen agirian, erriko izen asko aipatzen dira. 1967'koan ikusten ditut:

Garicardoya, karrika baten izena.

Garagardoya, mendia.

Araya'ko seme Jose Luis Herediak bere erriko izenen bilduma ederean ekartzen ditu:

Antoloi.

Antolokoi.

Altui.

Ascaroy, ascasaroi.

Ayurdin.

Chaduy.

Iduya.

Iduyabe.

Iduyabide.

Ilarduya.

Ilarduy.

Ilarduyeta.

Gaztanjadoy, Gaztandadoy.

Lizarduy.

Umandia.

Sagastuya.

Solandia.

Rondiazabal.

Bisituy, Bisistuy.

Arayan aurren arteko txapelketa bat egiteko bilduak eta zer esan nahi zuten adirezazteko San Martin jaunari bialduak.

J. M. Satrustegi